



HIKAGIN

[HIKAGIN- INKESTAREN EMAITZAK]

1.GO TXOSTENA:
HITANOAREN ERABILERAREN IKUSPEGI OROKORRA

IDOIA ETXEBERRIA, ITZIAR SAPSOOTHAM

Badihardugu Elkarte
Otaola hiribidea, 1
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 12 17 75

AURKIBIDEA

Sarrera.....	2
Inkesta	2
Emaitzak	3
GALDERA OROKORRAK: Inkestaren 1.go zatiaren emaitzak.....	4
Herriak eta probintziak.....	4
Parte-hartzaileen adina, sexua eta perfila.....	5
Hitanoaren egoera zure herrian	7
Hitanoari buruzko ikuspegia.....	8
Erabilera kalean eta baserrian.....	10
Erabilera gizonezkoen eta emakumezkoen arabera	11
Tokaren eta nokaren egoera	11
Hitanoaren transmisioa	12
Hitanoa berreskuratzeko interesa eta ekimenak	12
Hitanoa entzun eta erabili	14
HITANO ERABILTZAILEEN EZAGUTZA-MAILA: Inkestaren 2. zatiaren emaitzak.	15
Tokaren eta nokaren erabilera	15
Nola ikasi zenuen?.....	17
Ohiturazko arauak errespetatzea	17
Ondorioak	19
Eranskina I	21
Eranskina II.....	27
Eranskina III.....	36

HIKAGIN PROIEKTUA

Sarrera

Hikagin egitasmoaren helburu nagusia hitanoa biziberritzea da, bereziki noka, euskararen normalizatorako. Hitanoa tresna paregabea da kalean eta lagunartean erabiltzeko, hizkuntzari freskotasuna eta adierazkortasuna ematen dion hizkera informala delako. Nahiz eta ikastetxeetan euskaraz ikasi, gazte askok kalean erdarara jotzen dute bat-batekotasun, adierazkortasun eta informaltasun bila: gazte-hizkera baten bila. Euskarak berezkoa duen hizkera informala, berriz, gainbehera joan da azken hamarkadetan. Herri euskaldunenetan mantendu da ondoen, eta horietan ere galduz doa. Horregatik, gure asmoa euskaldunen artean, bereziki gazteen artean, hitanoaren erabilera areagotu eta sendotzea da, hizkuntza-ohiturak aldatu eta hiztunak aktibatzea. Batetik, Euskal Herri mailako Hikagin sarea sortzen ari gara eta, bestetik, herri batzuetan ekintzak eta jarduerak egiten, hikadunak sortzeko eta aktibatzeko.

Behin sarea osatuta, nondik hasi eta zer egin erabakitzeko, oso garrantzitsua da hitanoaren egoera zein den ezagutzea: non duen egoera onena, non ari diren hitanoa suspertzeko lanetan, transmisioa nola ematen den, hitanoari buruzko zer iritzi duten herritarrek... Hori guztia jakiteko, Euskal Herri mailako inkesta bat prestatu genuen. Inkestaren xedea: Euskal Herrian hitanoaren egoera zein den jakitea, bizirik dagoen herrietan. Egoera zein den jakinda, errazagoa delako biziberritzen saiatzea. 2022ko azaroan hasi ginen inkesta prestatzen eta abenduan zabaldu genuen.

Honako hau lehenbiziko txostena da eta bertan ikuspegi orokorra osatzen saiatu gara, inkestan jasotako datuekin. Kontuan izan behar da herri batetik bestera erantzunak asko aldatzen direla eta egindako inkestak lanketa askoz sakonagoa eskatzen duela: herriz herrikoa. Txosten hau, beraz, azterketa sakon baterako hasiera puntua besterik ez da.

Inkesta

Inkestak bi atal ditu: lehenengo zatian herrian herriko hitanoari buruzko galderak datoz (herriko egoera zer nolakoa den) eta bigarreanean hitano hiztunaren esperientzia pertsonalari buruzkoak (ezagutza-maila, nola ikasi duen, zenbat erabiltzen duen...). Inkesta erantzun duten guztiek ez dituzte bi atalak bete: guztiak ez ziren hitanodunak. 28 galdera prestatu ditugu guztira. Inkestako galderak dokumentu honetako *Eranskina I* atalean datoz.

Google Forms plataformak ematen duen aukera baliatu dugu inkesta prestatzeko. Inkesta anonimoa eta irekia izan da.

Hikagin sarerako identifikatutako pertsona guztiei helarazi genien inkesta, bete eta zabal zezaten, eta ikaragarri zabaldu zen. Hedapena emailaz eta sare sozialen bitartez egin da batik bat (WhatsApp bidez, besteak beste).

Emaitzak

Hilabete batez inkesta zabalik egon eta gero, 4.215 erantzun jaso ditugu guztira eta utzi dizkiguten iruzkinak kontuan hartuta, interesa piztu du.

Inkesta bi zatitan banatu dugu. Lehenengoa denek erantzun dute eta bigarrena hitanoa erabiltzen dutenek soilik, guztien % 63,4k (2.674 pertsonak), hain zuzen ere.

Gure helburu nagusienetako bat, hitanoa bizirik dagoen herrietako informazioa biltzea izan da, bizirik ez dagoen tokietan zailagoa delako berreskuratzea. Hala ere, beste toki batzuetatik ere erantzunak jaso ditugu eta baita bertako euskalkia egoera txarrean edo galduta dagoen herri eta hirietatik ere; adibidez, Bilbo (80 erantzun), Donostia (231), Irun (50), Gasteiz (37) eta Iruñea (48). Kontuan izan behar da hiriburuetan beste toki batzuetako jende asko bizi dela, eta horietako batzuek hika hitz egingo dutela (adibidez, herrikideek beraien artean eta baita toki desberdinetakoek ere). Bestalde, baliteke toki batzuetan hizkera informal baten beharra sumatzea, euskarari bizitasuna emango diona, eremu erdaldunduetan gazte askok euskara eskolako hizkuntza moduan soilik ikusi ohi duelako. Badira hitanoa ikasi eta erabiltzea erabakitzen duten taldeak ere, beraien jaiolekuan galduta egon arren.

Inkestaren erantzunak subjektiboak dira. Egoera beraren aurrean, batek bere herrian hitanoaren egoera ona dela esan dezake eta aldamenekoak, berriz, erdipurdikoa dela. Inkestako emaitzek termometro moduan balioko digute, hitanoaren inguruko ikuspegia neurtzeko.

Hurrengo orrialdeetan, inkestan jasotako datuen lanketaren azalpena eta irudikapena aurkezten dira.


GALDERA OROKORRAK: Inkestaren 1.go zatiaren emaitzak

Herriak eta probintziak


Jasotako emaitzak herrien eta probintzien arabera sailkatu ditugu¹. Guztira 287 herritako² erantzunak bildu ditugu. Herrien zerrenda osoa *Eranskina II* atalean ikus daiteke.

Nahiz eta guztira 4.215 erantzun jaso diren, erantzunetako 52 kanpoan geratu dira, herriaren erantzuna ez delako zuzena izan (adibidez, eskualdea edo probintzia idatzi dute) edo eta bizilekua eta jaioterrria aipatu dituzte, bietako zeini buruz ari diren zehaztu gabe. Beraz, 4.163 erantzunekin egin dugu datuen analisia. Herri kopurua kontuan hartuz gero, Gipuzkoan eta Bizkaian jaso dira erantzun gehien. Kopuruak oso antzekoak izan dira bietan: 87 herri Bizkaian eta 88 Gipuzkoan. Nafarroan ere herri askotako erantzunak jaso dira: 70 herri. Iparraldean, berriz, guztira 39 herrik parte hartu dute eta Araban hiruk³.

Parte hartutako herriak probintziaka



Erantzundako inkestak probintziaka



¹

<i>Probintzia</i>	<i>Herriak</i>	<i>Erantzunak</i>
<i>Araba</i>	3	64
<i>Bizkaia</i>	87	688
<i>Gipuzkoa</i>	88	3072
<i>Lapurdi</i>	19	55
<i>Naf. Beherea</i>	16	19
<i>Zuberoa</i>	4	7
<i>Nafarroa</i>	70	258
<i>Guztira</i>	287	4163

² Zerrenda osoa, ERANSKINA II atalean

³ Herriak eman diren erantzun-kopuruaren datu zehatza, ERANSKINA III atalean.

Arabako herrien partaidetza izan da baxuena, nahiz eta probintzia osoa kontuan hartuta erantzun gehiago jaso diren Ipar Euskal Herriko probintzietan baino. Araban, Aramaion bakarrik dago euskalkia bizirik. Aipatzekoa da Bizkaian eta Nafarroan euskara hain osasuntsu ez dagoen herri askotatik erantzun dutela (Getxo, Balmaseda, Basauri, Barakaldo, Zizur Handia, Ororbia, Tafalla, Tuter...) beraz, eremu erdaldunduetan ere badago interesa hitanoarekin. Gipuzkoan, berriz, herriak oro har euskaldunagoak izan dira.


UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) osatzen duten herri gehien-gehienetatik jaso dugu erantzunen bat, 90 herritatik baino gehiagotatik, hain zuzen ere.

Parte-hartzaileen adina, sexua eta profila

Adin-tarte guztietako herritarrek bete dute inkesta⁴ eta erantzun gehienak 30-60 urte bitartekoek eman dituzte (% 65,7). Adin-taldeeireparatuz, gehien parte hartu dutenak 40-50ekoak, 50-60koak eta 30-40koak izan dira, hurrenez hurren.

Talderik txikiena, 70 urtetik gorakoena izan da (94 herritar, % 2,2). Nahiz eta hitanoa gehien erabiltzen dutenak adinekoak izaten diren, kontuan izan behar da inkesta eskuko telefonotik edo ordenagailutik bete behar zela eta adinekoen partaidetza txikiagoa izatea ez da harritzekoa.

Parte-hartzaileen adin-tartea




⁴ Inkestan parte-hartu dutenen adin-tarteen datu gordinak:

Adin-tartea	Kopurua
<20	259
20-30	583
30-40	776
40-50	1153
50-60	838
60-70	504
>70	94

Nokaren erabilera tokarena baino askoz txikiagoa dela jakinda, inkesta bete dutenak gizonetzkoak ala emakumezkoak diren jakin nahi genuen. Kontuan izanda gero eta pertsona gehiago daudela genero jakin batekin identifikatzen ez direnak, galdera beste era batera planteatu genuen: "Zuri nola zuzentzea nahiko zenuke? Noka ala toka?". Suposatzen dugu 'noka' erantzun dutenak emakume sentituko direla eta 'toka' erantzun dutenak gizonetzko, salbuespenen bat ere egon daitekeen arren.

Zuri nola zuzentzea nahi zenuke?



	Kopurua	%
Noka	2471	% 58,8
Toka	1732	% 41,2


Hitanoa gizonetzkoen artean zabalduago egon arren eta gizonetzko hitano-hiztun askoz gehiago egon arren, emakume sentitzen direnak interes handiagoa erakutsi dute inkestarekin: bete dutenen ia % 60 izan dira (2.471). Hitanoa berreskuratzeko ekimenetan emakumeen presentzia gero eta handiagoa da (kasu askotan ahalduzetik eta berdintasuna lortu nahitik), eta baliteke inkestako emaitzak horren eragina izatea.

Inkesta osorik bete dutenei begiratu, ordea, gehiago dira gizonetzkoak emakumezkoak baino (% 2,25 gehiago). Hala ere, emaitzak oso parekatuta egon dira:

Hitano-hiztunak	Emakumeak	Gizonetzkoak	Guztira
	1.307	1.367	2.674

Erantzun dutenen profila jakiteko, kaletarrak, baserritarak edo nahasketa bat (gurasoak edo gurasoetako bat baserritarra izatea) diren galdetu dugu, hitanoa tradizioz baserri-giroan hobeto mantendu delako. Parte-hartzaile gehienak kaletarrak izan dira (% 69,6).

Erantzun dutenen profila




Hitanoaren egoera zure herrian

Herri bakoitzean hitanoaren egoera zein den jakiteko, eta kontuan izanda hitanoa bizirik dagoen herrietako emaitzak jasotzea zela hasierako helburua, erantzun hauek ipini genituen aukeran:

- Ona (bizirik dago eta toka-noka erabiltzen da)
- Erdipurdikoa (erabiltzen da, baina mutilen artean batez ere)
- Eskasa (gutxi erabiltzen da; adinekoen artean batez ere)
- Desagertzeko zorian (ez da entzuten ia; oso gutxik dakite)
- Beste erantzun bat emateko aukera

"Beste erantzun bat emateko aukera" jarri genuenez, askok "desagertuta" dagoela erantzun dute. Izan ere, inkesta bete duten herrietako batzuetan hitanoa aspaldi desagertu zen (kasu batzuetan, baita herriko euskalkia ere).



EGOERA	Kopurua	%
Ona	460	% 11
Erdipurdikoa	1396	% 33,4
Eskasa	1068	% 25,5
Desagertzeko zorian	1164	% 27,8
Desagertuta	96	% 2,3

Erdipurdiko egoera (erabiltzen da, baina mutilen artean batez ere) da erantzun gehien jaso dituen aukera (% 33,4). Egoera onaren (toka-noka erabiltzen da) emaitzekin (% 11) batuz gero, guztira % 44,4 osatzen dute. Hamar herritarretatik batek dio egoera ona dela, eta guztiak euskararen "arnasguneetakoak" dira (Azpeitia, Azkoitia, Zumaia, Getaria, Segura, Zaldibia, Ataun...).


Euren herriko hitanoaren egoera eskasa eta oso txarra dela uste dutenek % 55,6a osatzen dute eta % 30ek uste du hitanoa desagertzeko zorian dagoela.

Hitanoari buruzko ikuspegia

Sasoi batean hika egitea ez zegoen ondo ikusia eta horrek beherakada handia ekarri zion hitanoaren erabilerari (batez ere nokari). Gaur egun hitanoari buruzko ikuspegia zein den jaso nahi izan dugu, iritzi edo kritika horiek jarraitzen duten ala ez jakiteko. Bi galdera egin ditugu zentzu horretan:

- Hitanoa ondo ikusia al dago?
- Entzun/ezagutu al duzu hitanoaren kontrako iruzkinik edo jarrerarik?


Hitanoa ondo ikusia al dago zure herrian?



Badirudi gaur egungo ikuspegia nahiko baikorra dela: % 57,8k hitanoa ondo ikusia dagoela uste du, eta % 0,9k soilik esaten du fama txarra duela. Hori bai, % 14k dio gizonezkoen artean bakarrik dagoela ondo ikusia eta % 26k, berriz, ikusezina dela.

Hitanoaren kontrako iruzkin negatiboen inguruko galderan, berriz, % 71,5ek ezetz erantzun dute eta, beraz, denborarekin ikuspegia hobera aldatzen ari dela esan daiteke. Hitanoaren inguruko iruzkin negatiboak entzun dituztenen artean (% 28,5), hauek izan dira gehien entzundako kritikak:

Hitanoaren kontrako jarrerak



Erantzunen arabera, hitanoaren inguruko iritzi ezkorren bat entzun izan dutenen artetik, erdiek baino gehiagok entzun dute (% 53,7) hitanoa ez dela errespetuzko hizkera. Gainontzekoek honako azalpenak aukeratu dituzte: ez dela emakumeentzat hizkera egokia (% 26,6) eta itsusia dela (% 12,1) eta zenbaitek (% 6,7) hika ez egiteko eskatu dietela ere erantzun dute. Inkestan erantzun gehiago emateko aukera ere ipini genuen eta komentarioen artean hiru dira gehien errepikatzen direnak:


-Euskararen genero-neutraltasuna galtzen dela eta binarismoan oinarritzen dela

-Ikasteko zaila dela


-Hitanoa ezjakinen hizkera dela, ez dela modernoa: "*kaxeroen hizkuntza*" dela, "*ikasi ez dutenena*", "*kai-aurreko hizkuntza*", "*bastoa*", "*ez-kultoa*", "*herri txiki eta itxietakoa*"...

Iruzkien negatiboak entzun dituztenak guztira hamarretik hiru soilik badira ere, kontuan hartzekoa da oraindik ere kontrako mezuak entzuten direla. Erantzun anitzeko galdera gisa planteatu genuenez, hitanoaren kontrako iruzkin negatiboak adin-tarteka azaltzeko, datu edo erantzun gordinak erabili ditugu, ez ehunekoak.

Hitanoaren kontrako iruzkin negatiboak adin-tarteka



Hitanoaren kontrako iruzkinak sexuaren arabera




Hitanoari buruzko iruzkin negatibo gehien entzun dituen adin-tartea 40-50 urtekoa⁵ den arren, kontuan izan behar da adin-tarte hau izan dela inkesta bete duen gehiengoa (erantzun dutenen % 27,4). Adin-tarte guztietan, hitanoa errespetuzko hizkera dela nabarmentzen da, bai gizonezko eta baita emakumezkoetan ere.

Adin-tarte guztietakoek antzeko neurrian entzun izan dute hitanoa emakumezkoentzat ez dela hizkera egokia, ez dela fina. Kontu hori emakumeek eurek gehixeago entzun duten arren, gizonezkoen %14,2k ere entzun izan duela dio. Azkenik, hika ez hitz egiteko eskatu izan dietela ere badiote zenbaitek, bai emakumezkoek eta baita gizonezkoek ere (emakumeen ia % 3 eta gizonezkoen % 3,65) eta biei esan diete hizkera itsusia dela (gizonezkoen % 15i eta emakumezkoen % 9,25i).

Erabilera kalean eta baserrian

Erantzun dutenen erdiak baino gehiagok (% 53,3) hitanoa baserri-giroan hobeto mantendu eta erabiltzen dela uste du. Herri oso euskaldunetan (Azkoitian, adibidez), hitanoa kalean zein baserrian nahiko ondo mantentzen dela uste dute. Aitzitik, % 24,1en iritziz, bi giroetan dago galzorian.




⁵ Hitanoari buruz entzundako iruzkin negatiboen erantzun gordinak adin-tarteka:

Iruzkin negatiboak	>20	20-30	30-40	40-50	50-60	60-70	70 <
Ez da errespetuzkoa	57	109	138	192	119	96	29
Itsusia da	16	15	19	30	31	16	6
Emakumeentzat ez da fina	31	40	43	48	47	29	6
Ez hitz egiteko eskatu didate	3	2	5	10	7	6	2

Erabilera gizonezkoen eta emakumezkoen arabera

Hamar erantzunetatik zazpi baino gehiagok dio hitanoa gizonezkoek gehiago erabiltzen dutela eta % 11k, berriz, euren herriko emakumezkoek ez dutela erabiltzen. Badaude, hala ere, euren herrian erabilera nahiko parekoa dela diotenak ere (% 14).




Tokaren eta nokaren egoera

Tokaren eta nokaren egoera zein den jakiteko egindako galderen erantzunak grafiko bakarrean jaso ditugu, begi-bistako konparaketa azkar bat egin ahal izateko.


Tokaren egoera nokarena baino hobea dela erakusten dute emaitzek. Hauen arabera, % 5ek bakarrik uste du nokaren egoera ona dela bere herrian; toka, berriz, % 24k ikusten du egoera onean. Egoera erdipurdikoa dela dioten artean ere toka gailentzen zaio nokari. Beste muturrera joanda, noka galzorian edo galduta ikusten dutenak % 54,3 dira; tokaren kasuan, berriz, askoz gutxiago: % 23,1.

Hori bai, askok uste dute biak, noka zein toka, egoera eskasean daudela euren herrietan. Hori ere aipatzeko moduko datua da. Iruzkinetan 13 pertsonak esan dute 70 urtetik gorakoekin soilik egiten dutela hika.



Hitanoaren transmisioa

Hitanoaren transmisio-modua jakiteko, erantzun anitzeko galdera bat planteatu genuen, transmisio-bide bat baino gehiago egon daitekeelako. Aipagarria da erantzun guztietatik % 28,75ek transmisiorik ez dagoela erantzun izana. Transmisioa badagoela erantzun dutenen artean, erantzun bat baino gehiago emateko aukera zegoenez, datu gordinak erabili ditugu jasotako datuak irudikatzeko.




Hitanoaren transmisioa etxean eta familian eman da gehien, eta lagunartean ere asko. Badaude, hala ere, transmisioa euskaltegian eta eskolan egin dela diotenak ere, kopurua askoz txikiagoa den arren.

Hitanoa berreskuratzeko interesa eta ekimenak

Inkestaren helburuetako bat herrietan hitanoa bultzatzeko interesik ba ote dagoen jakitea izan da, eta norabide horretan zer ekimen egiten ote dituzten jakin nahi izan dugu.


Galdera honetako erantzunek batez ere herriz herriko diagnostikoetarako balioko dute, baina, laburbilduz, zera esan daiteke: hamarretik hiruk interesa ikusten du bere herrian hitanoa biziberritzeko eta hamarretik lauk dio bere herrian zerbait egiten ari direla hitanoa bultzatzeko.



Hika biziberritzeko ekimenen artean hika ikastaroak gailentzen dira; hika ikastaroen artean, 13 herritarrek noka ikastaroak aipatu dituzte komentarioetan (% 3,75ek). Hikalaguna ere hainbat tokitan egiten dute, gehienetan hika ikastaroekin lotuta. Hikaldia da (Euskaraldiaren barruan) herri batzuetan egiten duten beste ekimenetako bat.

Hika ikasteko materialak ere atera dituzte zenbait tokitan. Ikastetxeetan hitanoa lantzea ere aipatzen dute gutxi batzuek. Erantzunak herriz herri aztertu beharko lirateke, zer-non egiten ari diren jakiteko.


Hitanoa biziberritzeko ekimenak




Hitanoa entzun eta erabili

Hitanoaren erabilerari buruzko galderara iristean, inkesta bete dutenek inkesta bukatutzat emateko (hitanoa ez badute erabiltzen) edo jarraitzeko aukera zuten. Hau da, hitanoa erabiltzen dutenek bakarrik izan zuten inkestaren 2. zatia – hikadunen esperientziari buruzkoa – betetzeko aukera.

Entzuten al duzu hika inguruan?




Erabiltzen al duzu hitanoa?




Inkesta bete dutenen artetik % 7k ez du inguruan hitanorik entzuten, % 55ek gutxitan eta % 38k sarritan. Erabilerari dagokionez, % 36,4k ez du inoiz erabiltzen (ez dakigu zenbat diren hika ez dakitenak, baina pentsatzekoa da gehienek ez dakitela) eta % 63,6k noizbait bai (% 34,6k gutxitan erabiltzen du eta % 29k sarri). Azken hauek (% 63,6) izan dira inkestaren bigarren zatia bete dutenak.

2.674 dira hitano-erabiltzaileak, inkestaren bigarren zatia bete dutenak, alegia (lehenengo zatia 4.215 herritarrek). Erabilera aldatu egiten da hiztunaren generoaren arabera: hika darabilten gizonezkoak (% 66) gehiago dira emakumezkoak baino (% 34) eta gutxitan erabiltzen dutenen artean, berriz, emakumeak gehiago dira (% 63).

Hitanoa gutxitan erabiltzen dutenak




Hitanoa sarri erabiltzen dutenak



HITANO-ERABILTZAILIEN EZAGUTZA-MAILA: Inkestaren 2. zatiaren emaitzak

Inkestaren bigarren zatia 2.674 pertsonak bete dute. Beraz, hitano-erabiltzaileak dira. Duten ezagutza-mailaz galdetuta, nabarmentzekoa da % 69k maila altua duela erantzun duela, % 22,9k oso ona eta % 46,1k nahiko ona. Erdipurdikoa, berriz, % 24k, eta nahiko txarra % 7k.


Hitanoaren erabiltzaileen ezagutza-maila



Tokaren eta nokaren erabilera

Hitano-erabiltzaileen artean noka eta toka zenbat erabiltzen duten galdetuta, erantzunak nahiko desberdinak dira emakumezko edo gizonezko izan⁶.

Toka eta nokaren erabilera sexuaren arabera



Inkesta bete duten hamar gizonetatik zazpik toka sarri erabiltzen dute eta hiruk gutxitan. Emakumeek, berriz, toka hamarretik hiruk soilik erabiltzen dute sarri eta seik gutxitan; hamarretik batek, berriz, ez du inoiz erabiltzen. Badira toka erabiltzen ez duten gizonezko batzuk ere, baina gutxi dira proportzioan.

Nokaren kasuan, alderantziz da: sarri erabiltzen duten emakumeak gehiago dira gizonezkoak baino; hala ere, diferentzia ez da tokaren kasuan bezain handia. Gutxitan erabiltzen dutenen kopurua parekatuago dago; izan ere, hamar emakumetik seik gutxitan erabiltzen du noka eta gizonezkoen erdiek ere gutxi erabiltzen dute. Adierazgarria da gizonezkoen ia laurdenak ez duela sekula erabiltzen. Hori bai, badira inoiz noka erabiltzen ez duten emakume batzuk ere.

⁶ Hitanoa erabiltzen dutenen artean toka eta nokaren erabilera-maiztasunaren emaitza gordinak:

Tokaren maiztasuna	Emakumezkoek	Gizonezkoek
Sarri	439	271
Gutxitan	794	758
Inoiz ez	73	338

Nokaren maiztasuna	Emakumezkoek	Gizonezkoek
Sarri	439	271
Gutxitan	794	758
Inoiz ez	73	338

Nola ikasi zenuen?


Hitano-erabiltzaileei hitanoa nola ikasi duten ere galdetu diegu. Erantzun anitzeko galdera zen hau ere: posible zen erantzun bat baino gehiago ematea (posible delako, adibidez, etxean eta kalean ikasi izana edo eskolan eta etxean aldi berean). Grafikoa datu gordinak kontuan hartuta egin da, ez dago ehunekotan.

Erantzunen arabera, gehienek etxean ikasi dute (954 hiztun) eta asko dira kalean ikasi dutenak ere (674 hiztun). Aipagarria da hitanoa beren kabuz ikasi dutenen kopurua: 93 pertsona; izan ere, gehiago dira ikastaroetan ikasi dutenak baino (ikastaroetan 52 lagunek). Hitanoa eskolan bakarrik ikasi duten batzuk ere badaude.

Beste erantzun batzuk emateko aukera ere bazegoen, eta 6 dira lankideekin ikasi dutela erantzun dutenak.

<i>Hika ikasteko modua</i>	<i>Erantzunak</i>
Etxean, familian	954
Kalean, lagunartean	674
Eskolan	32
Ikastaroetan, hikalaguna...	52
Nire kabuz	93

Hika ikasteko modua




Ohiturazko arauak errespetatzea

Hamarretik seik (1.616 hiztunek) beti errespetatzen dituzte ohiturazko arauak: nagusiei eta gurasoei hika ez hitz egitea, besteak beste. Hori bai, badira normalean arau horiek betetzen ez dituztenak ere: 332 hiztun, % 12,6.

Eta badira arauak pertsonaren arabera betetzen dituztenak ere (% 26,3, 694 hiztun); gehienetan pertsona horrekin adostasun batera heldu direlako izan ohi da. Komentarioetan batzuek aipatzen dute amari, osabei, auzoko adinekoei... hika egiten dietela, haien baimenarekin.

Ohiturazko arauak errespetatzen al dituzu?



Jasotako komentarioetan asko errepikatzen den kontu bat hauxe da: hika jakin arren, ohiturazko arauak errespetatuz gero (nagusiagoei ez hitz egitea, batez ere), ez dutela aukerarik inorekin hika egiteko, eta horrek hitanoaren galera dakarrela. Hona hemen iruzkinetako batzuk:

- “Gutxiegi erabiltzen da eta arauak jarraitzeak asko murrizten du erabilera aukera.”
- “Semeak niri hika, bestela ez du praktikatuko, Ondarroan ez da egiten eta.”
- “Horregatik ari da galtzen”

Ondorioak

Tokian tokiko azterketa sakonagoak egin gabe ezin da ondorio zehatzik atera, baina hona hemen begi-bistan geratu diren ondorio aipagarrienak:

- Euskal Herriko 287 herritako erantzunak jaso dira, zazpi probintzietakoak.
- Erantzun gehien Gipuzkoan jaso dira, 3.000tik gora (% 73,8).
- 4.215 erantzun jaso dira guztira eta horietatik erdiek baino gehiagok hitanoa erabiltzen dute.
- Inkesta bete dutenen gehiengoak bere herrian hitanoaren egoera eskasa eta oso txarra dela dio (% 55,6); egoera ona dela diotenak % 11 dira; eta egoera erdipurdikoa dela, eta batez ere mutilen artean erabiltzen dela diotenak, berriz, % 33,4.
- Egoera onena euskararen "arnasguneetan" du hitanoak.
- UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) osatzen duten udalerrri gehienetatik jaso dugu erantzunen bat, 90 herritatik baino gehiagotatik, hain zuzen ere.
- Erantzun dutenen erdiak baino gehiagok dio hitanoa baserri-giroan hobeto mantendu dela kale-giroan baino.
- Inkesta emakumezko gehiagok bete du gizonezkoek baino (% 58,8).
- Hitano-erabiltzaileen artean, erantzun duten emakumezko eta gizonezko kopurua antzekoa izan da. (1.367 gizonezko eta 1.307 emakumezko).
- Herritarren % 71,5ek ez du hitanoaren kontrako iruzkin negatiborik entzun.
- Hitanoari buruzko iruzkin negatiboen artean, ez dela errespetuzkoa eta ez dela aproposa emakumezkoentzat, ez delako fina, entzun izan du jendeak gehienbat.
- Nokaren eta tokaren egoeraren ikuspegia oso ezberdina da: % 5ek bakarrik uste du nokaren egoera ona dela bere herrian; toka, berriz, % 24k ikusten du egoera onean. Noka galzorian edo galduta ikusten dutenak % 54,3 dira; tokaren kasuan, berriz, gutxiago: % 23,1.

- Hitanoaren transmisio-moduei buruz galdetuta, % 28,75k transmisiorik ez dagoela erantzun du.
- Hamarretik hiruk interesa ikusten du bere herrian hitanoa biziberritzeko eta hamarretik lauk dio bere herrian zerbait egiten ari direla hitanoa bultzatzeko. Ekimenen artean hika ikastaroak dira gehien aipatu direnak.
- Inkesta bete dutenen % 63,6k hika erabiltzen dute eta, erabiltzen ez dutenen artean, % 7k ez du inoiz inguruan hitanorik entzuten.
- Hitano-erabiltzaileen artean, gizonezkoek maizago erabiltzen dute emakumeek baino (sarri erabiltzen duten gizonezkoak % 66 dira; emakumezkoak, berriz, % 34).
- Hitano-erabiltzaileen ezagutza-maila ona da: % 69k maila altua duela uste du, % 22,9k oso ona eta % 46,1ek nahiko ona.
- Tokaren erabilera: hamar gizonezkotatik zazpi eta hamar emakumezkotatik hiruk toka erabiltzen dute.
- Nokaren erabilera: emakumezkoek sarriago erabiltzen dute noka gizonezkoek baino eta azken hauen % 24,7k ez du sekula erabiltzen.
- Hitano-erabiltzaile gehienek etxean ikasi dute hitanoa eta asko dira kalean ikasi dutenak ere.
- Hitanoa beren kabuz ikasi dutenak gehiago dira ikastaroetan ikasi dutenak baino.
- Ohiturazko arauei dagokienez, erdiek baino gehiagok errespetatzen dituzte hitanoaren erabilera-ohiturak, baina badira arauak hausten dituztenak ere, solaskidearekin adostuta.
- Ohiturazko arauak jarraitzeak hitanoaren galera dakarrela uste dute askok.

ERANSKINA I: Inkesta-eredua

HITANOAREN ERABILERA

INKESTA HONEN HELBURUA: EUSKAL HERRIAN HIKAREN EGOERA ZEIN DEN EZAGUTZEA, BIZIRIK DAGOEN HERRIETAN. DIAGNOSIA EGINDA, ERRAZAGOA IZANGO DA BIZIBERRITZEA.

LAGUNARTEKO HIZKERA HAU HAINBAT MODUTARA EZAGUTZEN DA: HI ESATEA, HITANOA, HIKA, HIKETA, TOKANOKA, TOKETANOKETA, EZTOKBADOK, EZTONABADONA, TO ETA NO, HITATOA...

5 MINUTU BAINO GUTXIAGO IZANGO DIRA. **LAGUNDUKO DIGUZU?**

INKESTAKO GALDERAK

Herria

Adina

20 baino gutxiago

2030

3040

4050

5060

6070

70etik gora

Nongoa zara?

Kalekoa

Baserrikoa

Nahasketa bat

Zuri nola zuzentzea nahiko zenuke?

Noka (emakumeei egiten zaiena)

Toka (gizonezkoei egiten zaiena)

Hitanoari buruzko galdera orokorrak (1. zatia: herriko egoera ezagutzeko)

Hitanoaren egoera zure herrian

- Ona (bizirik dago eta toka-noka erabiltzen da)
- Erdipurdikoa (erabiltzen da, baina mutilen artean batez ere)
- Eskasa (gutxi erabiltzen da; adinekoen artean batez ere)
- Desagertzeko zorian (ez da entzuten ia; oso gutxik dakite)

Ondo ikusia al dago?

- Bai
- Bai, baina gizonezkoen artean bakarrik
- Ez, fama txarra du
- Ez ondo eta ez gaizki: ikusezina da

Erabilera kalean eta baserri giroan

- Bietan nahikotxo
- Bietan galzorian
- Baserri giroan gehiago

Erabilera emakumezkoen eta gizonezkoen kasuan

- Berdin
- Gizonezkoek gehiago emakumezkoek baino
- Emakumezkoek ez dute erabiltzen

Tokaren egoera

- Ona
- Erdipurdikoa
- Eskasa
- Galzorian
- Beste bat idazteko aukera

Zer adinetakoek erabiltzen dute toka? (bat baino gehiago aukera daitezke)

- Mutilek gaztetxotatik
- Mutilek zein neskek gaztetxotatik
- 3040 urtetik gorako gizonezkoek

3040 urtetik gorako gizon-emakumeek
4050 urtetik gorako gizonezkoek
4050 urtetik gorako gizon-emakumeek
5060 urtetik goirako gizonezkoek
5060 urtetik gorako gizon-emakumeek
Beste bat idazteko aukera

Nokaren egoera

Ona
Erdipurdikoa
Eskasa
Galzorian
Galduta

Zer adinetakoek erabiltzen dute noka?

Neskek eta mutilek gaztetxotatik
Kontzienteki ikasi duten batzuek (tardean gazteak)
3040 urtetik gorako gizon-emakumeek
4050 urtetik gorako gizon-emakumeek
5060 urtetik gorako gizon-emakumeek
6070 urtetik gorako gizon-emakumeek
Beste erantzun bat idazteko aukera

Transmisioa nola egiten da?

Etxean, familian
Kalean, lagunartean
Eskolan ikasita
Euskaltegian, ikastaroen bidez
Esango nuke ez dagoela transmisiorik
Beste erantzun bat idazteko aukera

Entzun/ezagutu al duzu hitanoaren kontrako iruzkinik edo jarrerarik?

Bai, hitanoa itsusia dela
Bai, hitanoa ez dela emakumeentzat (ez delako hizkera fina)
Bai, ez dela errespetuzkoa
Bai, hika ez hitz egiteko esan didate

Ez

Beste erantzun bat idazteko aukera

Ba al dago hitanoa biziberritzeko interesik/gogorik herrian?

Bai

Ez bereziki

Ez dakit

Ba al dago hitanoa berreskuratzeko ekimenik martxan herrian?

Bai

Ez

Ez dakit

Baietz bada, zer?

Hika ikastaroak

Hikalaguna

Hikaldia

Materiala (liburua, aditz-taulak...)

Hika bertso-saioak...

Beste erantzun bat idazteko aukera

Entzuten al duzu hika inguruan?

Inoiz ez

Gutxitan

Sarri

Erabiltzen al duzu hitanoa? (erantzun loteslea: 'inoiz ez' erantzuten duena ez da 2. zatira pasatzen)

Inoiz ez

Batzuetan

Sarri

ESPERIENTZIA PERTSONALA HITANOAREKIN (2. zatia)**Zure hitanoaren ezagutza-maila**

- Oso ona
- Nahiko ona
- Erdipurdikoa
- Nahiko txarra

Erabiltzen duzu toka?

- Sarri
- Inoiz ez
- Gutxitan
- Beste aukera bat

Erabiltzen duzu noka?

- Sarri
- Inoiz ez
- Gutxitan
- Beste aukera bat

Nola ikasi zenuen hika?

- Etxean entzunda, familiarekin
- Kalean, lagunartean
- Eskolan
- Ikastaro batean, hikalagunekin...
- Nire kabuz
- Beste aukera bat

Nori egiten diozu hika?

- Anai-arrebei
- Seme-alabei
- Lagunei (eta hikalagunei)
- Gertuko egiten zaidan edozeini
- Alabari
- Semeari

Ahizpari/arrebari

Anaiari/nebari

Beste aukera bat

Zenbat pertsonarekin egiten duzu hika?

15

6-10

11-20

20-30

Askorekin (zaila da kontatzea)

Beste aukera bat

Nork egiten dizu hika?

Emakumezkoek eta gizonezkoek berdin

Emakumezkoek gehiago

Gizonezkoek gehiago

Emakumezkoek ez didate hika egiten

Gizonezkoek ez didate hika egiten

Beste aukera bat

Errespetatzen al dituzu ohiturazkoa arauak?

Bai

Ez

Pertsonaren arabera

Beste aukera bat

ERANSKINA II

Inkesta erantzun dutenen herrien zerrenda, probintziaka:

ARABA	
Herria	Erantzunak
Agurain	2
Aramaio	25
Gasteiz	37
BIZKAIA	
Abadiño	12
Abanto Zierbena	1
Amorebieta-Etxano	49
Arantzazu	1
Areatza	3
Armintza	1
Arrankudiaga (Zollo 1)	7
Arratzu	1
Arrigorriaga	1
Artea	4
Artzentales	1
Astrabudia (Erandio)	1
Atxondo	6
Aulesti	23
Bakio	2
Balmaseda	3
Barakaldo	7
Basauri	5
Bedia	4
Bermeo	13
Berriatua	1
Berriz	3

Bilbo	80
Busturia	1
Derio	3
Dima	18
Durango	38
Ea	6
Elorrio	38
Erandio	1
Ermua	13
Etxebarria	8
Forua	1
Fruiz	5
Galdakao	35
Garai	3
Gatika	1
Gategiz Arteaga	1
Gernika-Lumo	26
Getxo (Algorta 5)	26
Gizaburuaga	1
Gordexola	2
Gorliz	4
Ibarruri	1
Igorre	19
Iurreta	6
Izurtza	1
Kortezubi	1
Larrabetzu	19
Laudio	4
Leioa	8
Lekeitio	15
Lemoa	7
Lemoiz	1
Lezama	5
Loiu	1
Mallabia	9
Mañaria	5

Markina-Xemein	16
Mendexa	4
Meñaka	3
Morga	1
Mundaka	1
Mungia	12
Munitibar	2
Murueta	1
Muxika	2
Ondarroa	15
Orozko	5
Ortuella	1
Otxandio	5
Plentzia	2
Portugalete	3
Santurtzi	2
Sestao	2
Sondika	4
Sopela	2
Trapagaran	1
Ugao-Miraballes	4
Urduliz	2
Usansolo	9
Zaldibar	8
Zalla	2
Zamudio	3
Zeanuri	10
Zeberio	2
Ziortza-Bolibar	2
GIPUZKOA	
Abaltzisketa	17
Aduna	7
Aia	16
Aizarnazabal	6

Albiztur	3
Alegia	43
Alkiza	3
Altzaga	8
Altzo	13
Amasa-Villabona	49
Amezketeta	20
Andoain	44
Anoeta	31
Antzuola	20
Arama	1
Aretxabaleta	31
Arrasate	114
Asteasu	24
Astigarraga	16
Ataun	34
Azkoitia	304
Azpeitia (Urrestilla 3)	140
Baliarrain	6
Beasain	54
Bedaio	2
Beizama	5
Belauntza	2
Berastegi	12
Bergara	94
Berrobi	4
Bidania-Goiaz	2
Deba (Itziar 4)	19
Donostia (Añorga 5, Altza 5, Zubieta 4, Igeldo 13)	231
Eibar	105
Elduain	2
Elgeta	8
Elgoibar	28
Errenteria	52
Errezil	24

Eskoriatza	52
Ezkio-Itsaso (6 Ezkio, 1 Itsaso)	7
Gabiria	15
Gaintza	1
Gaztelu	1
Getaria	36
Hernani	83
Hernalde	6
Hondarribia	46
Ibarra	30
Idiazabal	34
Ikaztegieta	4
Irun	50
Irura	9
Itsasondo	1
Larraul	5
Lasarte-Oria	38
Lazkao	20
Leaburu	3
Legazpi	33
Legorreta	19
Leintz-Gatzaga	3
Lezo	18
Lizartza	5
Mendaro	20
Mutiloa	2
Mutriku	11
Oiartzun	73
Olaberría	1
Oñati (Araotz 3)	84
Ordizia	38
Orexa	10
Orio	74
Ormaiztegi	10
Pasaia (10 Donibane eta 2 San Pedro)	24
Segura	24

Soraluze	12
Tolosa	106
Urnieta	22
Urretxu	23
Usurbil	43
Zaldibia	47
Zarautz	188
Zegama	12
Zerain	2
Zestoa (Aizarna 6)	26
Zizurkil	19
Zumaia	73
Zumarraga	15
LAPURDI	
Angelu	2
Azkaine	8
Baiona	4
Bardoze	1
Beskoitze	1
Donibane Lohitzune	5
Ezpeleta	2
Hazparne	1
Hendaia	13
Itsasu	2
Larresoro	1
Lekorne	1
Luhuso	1
Mugerre	1
Sara	2
Senpere	3
Uztaritze	3
Ziburu	3
Urruña	1

NAFARROA BEHEREA	
Ainhize-Monjolose	2
Anhauze	1
Baigorri	1
Behauze	1
Bidarra	1
Donapaleu	1
Donibane Garazi	2
Eiheralarre	1
Gamarte	1
Garruze	1
Heleta	1
Irulegi	1
Larzabale	1
Ortzaize	1
Suhuskune	1
Urepele	2
ZUBEROA	
Gotaine	1
Lexantzü	1
Maule	3
Ozaze-Zühara	2
NAFARROA	
Altsasu	3
Amaiur	2
Antsoain	2
Araitz	1
Arano	4
Arantza	4
Arbizu	28
Areso	1

Arizkun	1
Arrarats (Basaburua)	1
Arruazu	1
Atarrabia	2
Aurizperri	1
Aurtitz	1
Auza (Ultzama)	1
Azkarate	1
Azpilikueta	1
Bakaiku	1
Barañain	4
Baztan	1
Bera	14
Berriozar	1
Berute	2
Betelu	1
Burlata	4
Doneztebe	5
Dorrao (Ergoiena)	2
Egillor (Ollaran)	3
Elizondo	7
Eltzaburu	1
Erratzu	2
Etxalar	3
Etxaleku	1
Etxarri Aranatz	7
Gartzain (Baztan)	3
Goizueta	6
Gorriti	1
Igantzi	3
Ilarratz	1
Iragi	1
Irañeta	1
Iruñea	48
Irurtzun	2
Ituren	2

Kaseda	2
Larraun (Oderitz 1)	2
Legasa	1
Leitza	21
Lekaroz	1
Lekunberri	4
Lesaka	10
Lizoinibar-Arriasgoiti (Iheltz 1)	1
Mezkiritz (Iruñea)	1
Murtxante	1
Orbaizeta	1
Ornoz-Mugaire (Baztan)	2
Ororbia	1
Sarriguren	2
Sunbilla	3
Tafalla	2
Tutera	4
Uharte-Arakil	3
Urdazubi	2
Urritza (Imotz)	1
Urrotz	1
Zilbeti	1
Ziordia	2
Zizur Nagusia	2
Zizur Txikia	2
Zubieta	3

ERANSKINA III

Erantzun gehien Gipuzkoan jaso dira, gainontzeko probintzia guztietan baino askoz gehiago: 3.000tik gora (% 73,8). Gipuzkoako herri batzuetan herritar askok erantzun dute. Hona hemen 50 erantzunetik gora bildutako 16 herriak, kopuru handienetik txikienera: Azkoitia (304), Donostia (231), Zarautz (188), Azpeitia (140), Arrasate (114), Tolosa (106), Eibar (105), Bergara (94), Oñati (84), Hernani (83), Orio (74), Zumaia (73), Oiartzun (73), Beasain (54), Errenteria (52) eta Eskoriatza (52). Herri horietan guztietan izan dira hitanoa biziberritzeko ekimenak, nahiz eta guztietan hitanoaren egoera desberdina izan (batzuetan nahiko ona da eta beste batzuetan galzorian dago).

Bizkaia da erantzun gehien jasotako bigarren probintzia. Hogei erantzun baino gehiago jaso dituzten herriak Bilbo (80), Amorebieta-Etxano (49), Durango (38), Elorrio (38), Galdakao (35), Gernika-Lumo (26), Getxo (26) eta Aulesti (23) izan dira. Herri horietako batzuetan ere hitanoa berreskuratzeko lanetan ari dira: Durangaldean, Amorebieta-Etxanon eta Galdakaon, esaterako.

Nafarroan 258 erantzun jaso dira: Iruñean (80), Arbizun (28), Leitzan (21), Beran (14) eta Lesakan (10) jaso dira erantzun gehien. Baztanen, Leitzaldean eta Sakanan badira hitanoa berreskuratzeko ekimen batzuk.

Ipar Euskal Herrian, guztira 81 erantzun jaso dira, 39 herritan. Erantzun gehien jaso diren herriak Lapurdikoak dira: Hendaia (13), Azkaine (8) eta Donibane Lohitzune (5).